

PRESTAKUNTZA ARLOA:	IKT (Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak)
MODALITATEA:	Lineakoa
HIZKUNTZA:	Euskara

FACEBOOK ETA TWITTER: KOMUNIKAZIOA ETA (ZIBER)SEGURTASUNA

KODEA

2019-34-2-2

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA 25 ordu **GEHIENEZKO KOPURUA** 25 lagun **IKASTARORAKO SARBIDEA** <http://autoprestakuntza.euskadi.eus>

HARTZAILEAK Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak eta haien erakundeko sareak kudeatzen dituztenak.

ESKAKIZUNAK - Posta elektronikoaren kontu bakar bat ikasleko.
- Administrazio Orokorreko langileentzat: posta elektronikoaren kontu bat, posta sare korporatibokoak ez diren posta-zerbitzarietara bidaltzeko eta zerbitzari horietatik jasotzeko aukerarekin. Ez dira baliozkoak izango mezuak soilik sare korporatiboaren barruan bidali eta jaso ditzaketenak.

ESKAKIZUN TEKNIKOAK **SOFTWAREA:**

- Windows XP edo berriagoa
- Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox edo Chrome eguneratuak
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- Adobe Flash Player 10 edo berriagoa
- Acrobat reader 8 edo berriagoa (gomendatua)
- Internetarako konexioa eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik

HARDWAREA:

- PC Pentium III edo berriagoa
- Soinu-txartela
- Entzungailuak edo bozgorailu independenteak

TUTORETZAK Tutorearen egitekoak:

- Ikasleei plataforman ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea.
- Kontsultei erantzutea:
 - ikastaroaren edukiari buruzkoak, plataformako foroaren bidez
 - 24 orduko epean erantzutea
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIOAK	BAJEN JAKINARAZPENAK (ez dakar matrikula-kosturik)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	OE	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
AZAROA	Azaroaren 4a	Azaroaren 29a	Urriaren 4a	Urriaren 7tik 11ra	Urriaren 11n	Urriaren 31 arte

ZER LORTU NAHI DA?

HELBURU OROKORRAK

- Administrazio nire gunetik gizarte-sareen zentzua eta helburua ulertzea, zertarako erabil ditzakedan ulertzea
- Berezko estilo bat definitzea eta gizarte-sare korporatiboak erabiltzeko trebatzea
- Parte-hartzaileen eta haiek ordezkatzeko dituzten instituzioen konpetentzia digitalaren garapenean laguntzea
- Sare sozialak erabiltzerakoan informazio digitala eta sareak babesteko irizpideak ezagutu eta erabiltzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Aurkeztutako gizarte-sareen ezaugarriak eta funtzionamendua ulertzea: Twitter eta Facebook.
- Gure helburuarekin bat datozen erabilerak eta praktikak identifikatzea eta modu antolatua, seguru eta adostuan abiaraztea.
- Komunikazio eta elkarrekintza digitaleko estrategia baten ahalmenari buruz eta hura hedatzean izan beharreko zuhurtziari buruz hausnarketa egitea.
- Sare sozialen arriskuak eta segurtasun neurriak ezagutzea.

FACEBOOK ETA TWITTER: KOMUNIKAZIOA ETA (ZIBER)SEGURTASUNA

Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gauza izango da:

GAITASUNAK

- Facebook eta Twitter gizarte-sare korporatiboak erabiltzeko, ordezkatzen duen erakundearen identitatearekin eta puntu sendoeikin bat datozen komunikazio-estilo, aldizkakotasun eta estrategia bat finkatuz, eta definitutako estrategian oinarrituta estilo hori denboran mantenduz.
- sare sozialak modu seguruan erabiltzeko eta arriskuei aurre egiteko modu egoki batean

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA

Hausnarketatik abiatuta egiten ikasiko metodologia proposatzen dugu, parte hartzaile bakoitzaren egunerokotasunean eragina izan dezan ikastaroa amaitu ondoren. Konektibismo metodologiak gamifikazioaren eta berdinen arteko elementuak jasotzen du. Ikastaro hasieran prestakuntza-bidea aurkeztuko da; prestakuntzako baliabideak, jarduerak, ebaluazioaren irizpideak eta baita hautazko jarduerak ere. Komunikazio irekia eta harreman erraza bultzatuko da ikastaroak dirauen lau asteetan zehar, horrela, ikaskideen arteko laguntzarako sareak sortuko dira.

PROGRAMA

1. Identitatea eta konpetentzia digitala
2. Facebook eta Twitter gizarte-sareei buruzko ahalmena eta estrategia
3. Informazioaren jabetza eta Big Data
4. Arriskuak, prebentzioa eta babesa
 - 4.1. Interneteko arriskuak
 - 4.2. Sare sozialak babesteko irizpideak
 - 4.3. Sare sozialen arriskuak

EBALUAZIOA

Ebaluazioaren **helburua**: ikastaroaren helburu orokorrak eta espezifikoak bete direla bermatzea. Ikastaroaren ebaluazioan, **2 kasu praktiko** eta galdetegi bat daude. Jarduerak ordenagailuan egin behar dira, gero plataforma birtualean jartzeko; tutoreak zuzenduko ditu batzuk, plataformatik, eta besteak beste ikaskide batek zuzenduko du ebaluazio errubrika baten bitartez. Kalifikazio tresna bat da errubrika, non ikaskuntzaren helburuekin bat datozen irizpideak deskribatzen diren. Irizpide horiek oinarri ikasle batek beste baten jarduera baloratuko du. Ariketak zuzentzearekin batera, irakasleak lanaren feedback bat itzuliko du.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen gogobetetze-inkesta eta Irakaslearen balorazio-inkesta. Posta elektronikoaren bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

ZIURTAGIRIA

Aprobetxamenduaren ziurtagiria lortzeko betekizunak:

- Ikastaroko 2 jarduerak gaindituta izatea.
- Galdetegi gainditzea, gutxienez, 20 galderetatik 15 erantzun zuzen

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtatzeak" atalean.

PREZIOA

186€
AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. (Abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.)

LAGUNTZA

Laguntza teknikoa behar izanez gero:

- Deitu CAUko telefono zenbakira (945016) **440**
- Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara

Aministrazio-gaiekin lotutako kontsultak egiteko: prestakuntza@ivap.eus